

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila: 1. saria

PAKI BERDINTASUNAREN OILOA

Ane Agirre Miner

Bazen behin egun batean herri txiki batean oilategi bat. Oilategi horretan hamar oilo, oilar bat eta bost txita zeuden. Horietako txita batek Paki izena zuen eta handia izatean oilarraren lana egin nahi zuen. Txita oiloa egin zenean oilarraren lana ezin zuela egin esan zioten. Orduan, egun batean oilategiko oilarra gaixotu egin zen. Paki oiloa inork ikusi gabe oilarraz mozarrotu zen, jabeak konturatu gabe.



Egun batean, oilategiaren jabeak ez ziren esnatu. Orduan, Paki oiloak auzokidearen txakurra esnatu eta buztanetik tira egin zion. Txakurrak zaunka handiz oilo, baserritar eta jende guztia esnatu zuen. Paki oiloa denek bilatzen zuten, baina mozarrotu zenez, ez zuen inork aurkitu arratsalde osoan. Baina, bat-batean, pareta batean mozarroa uztartu zitzaion. Orduan, konturatu ziren Paki oiloa oilarrez mozarrotua zegoela.

Denek ikusi zuten Paki oiloak oilarraren lana egin ahal zuela. Denak oso pozik jarri ziren eta festa bat egin zuten. Oso ongi pasa zuten denek eta txita guztiei erakutsi zieten oiloek ere oilarraren lana egin ahal zutela.



Txakur gaixo horri, oilo askok berriz ere buztanetik tirako diote jendea esnatzeko: “ai ai ai, oi oi oi, ei ei ei, i i i, ui ui ui!!”.

Paki oiloa oilarrez mozarrotu zen eguna martxoaren 8a zen, eta horregatik martxoak 8 “oiloen eguna” deitu zuten.